

JARRAIBIDEAK, UDAL-ORDENANTZAK ETA -ERREGELAMENDUAK EGITEKO PROZEDURAN ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA ETA ENTZUNALDI ETA INFORMAZIO PUBLIKOA JASOTZEKO

I KAPITULUA.- JARRAIBIDEEN XEDEA

1. Xedea.

1.1. Jarraibide hauen xedea da udal- ordenantza eta -erregelamenduak egiteko prozeduran aldez aurreko kontsulta publikoa jasotzea, eta bai urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio-Prozedura Erkidearenak, 133. artikuluan aipatutako entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea ere.

1.2. Ordenantza eta erregelamenduen aurreproiektuak edo proiektuak idatzi aurretik, kontsulta publikoa egingo da Zamudioko Udalaren webgunean (www.zamudiokoudala.net); arau berriak eragin ditzakeen herritarren eta elkarteen iritzia batuko da, eta bai ordezkaritza handiena duten antolakundeena ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio-Prozedura Erkidearenak, 133. artikuluan aipatutako legez.

1.3. Webgune berean emango da argitara ordenantza edo erregelamenduaren aurreproiektu edo proiektuaren testua, pertsonen eskubide eta interes legitimoiei eraginez gero, eragindako herritar horiei entzunaldia emateko eta beste herritar edo entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

II KAPITULUA. ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

2. Ezarpen-eremua.

2.1. Osoko Bilkuraren onarpena behar duten ordenantza eta erregelamenduen testua idatzi aurretik kontsulta publikoa egitea eskatu ahal izango da.

2.2. Ez dute aldez aurreko kontsulta publikoaren izapidea egin beharrik, ez aurrekontuei eta antolaketari buruzko arauak onartzeko ekimenek, ez eta gaiaren arabera lege berezien bidez araututako administrazio-prozedurek ere, lege berezi horiei jarraitu behar baitie.

2.3. Ekimena proposatzen duen organoak aldez aurretik arrazoituz gero ere, ez da aldez aurreko kontsulta publikoaren izapiderik egin behar izango, honako kasu hauetako edozeinetan:

- a) Interes publikoko arrazoi larriak gertatzen direnean.
- b) Arau-ekimenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez duenean.
- c) Hartzaileentzat betebeharrak garrantzizkorik ezartzen ez duenean.
- d) Gai baten inguruan eduki partzialak arautzen dituenen.

3. Edukia.

Ekimena proposatzen duen organoak ebatziko du kontsultaren edukia, eta gutxienez honetaz izango da:

- a) Ekimenaren bidez konpondu gura den arazoa edo arazoak.
- b) Araua onartzea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon litezkeen bestelako aukerak, erregulatzailerak direnak eta ez direnak.

4. Epea eta hartzaileak.

- 4.1. Aldez aurreko kontsulta publikoak hamabost egun naturaleko epea izango du gehienez ekimen bakoitzean, Udalaren webgunean eskegi eta hurrengo egunetik aurrera.
- 4.2. Aldez aurreko kontsulta publikoaren hartzaileak 16 urtetik gorako pertsona fisikoak izango dira, eta bai arau berriak eragin ditzakeen antolakunde eta elkarte legez eratuak ere.

5.- Prozedura.

- 5.1. Ekimena proposatzen duen organoak Udalbatzaren Alkatetza-Udalburutzari helaraziko dio ekimen hori, jarraibide hauetako 3. artikuluan aipaturiko dokumentazio eta edukiarekin batera.
- 5.2. Alkatetza-Udalburutzarena da aldez aurreko kontsulta publikoa egiteko eskumena.
- 5.3. Alkatetza-Udalburutzak aldez aurreko kontsulta publikoa egitea erabakitakoan, erakundearen webgunean iragarkia argitara emango da; iragarkian ekimena jasoko da eta epea zehaztuko da, jarraibide hauetako 4.2 artikuluan aipaturiko hartzaileek euren iritzia eta ekarpenak egin ditzaten, aurrez aurre zein egoitza elektronikoan.

6.- Ordenantza edo erregelamenduaren aurreproiektua edo proiektua.

Kontsulta egindakoan, ekimena proposatu duen organoak aurrera eraman nahi duen aurreproiektua edo proiektua egingo du, edo desegokia edo bidegabeta dela baloratuko du bestela.

III. KAPITULUA. ENTZUNALDI ETA INFORMAZIO PUBLIKOA

7.- Entzunaldi eta informazio publikoa.

- 7.1. Aldez aurreko kontsulta publikoa eragotzi barik, arauak pertsonen eskubide edo interes legitimoak eragiten dienean, Alkatetza-Udalburutzak erakundearen webgunean argitaratuko du ordenantza edo erregelamenduaren aurreproiektu edo proiektuaren testua, eragindako herritarren entzunaldia egiteko eta beste pertsona edo entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.
- 7.2. Halaber, zuzenean jaso ahal izango da antolakunde edo elkarte legez aitortuen iritzia, baldin eta arauak eragin ditzakeen eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak batu edota ordezkatzeko badituzte.

8.- Prozedura.

8.1. Entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak hamar egun naturaleko epea izango du, Udalaren webgunean eskegi eta hurrengo egunetik aurrera.

8.2. Epe hori amaitutakoan, ekimena proposatu duen organoak ordenantza edo erregelamenduaren behin betiko testua idatziko du eta ondoren Osoko Bilkuraren onarpena beharko du.

IV. KAPITULUA.- DATUEN BABESA ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOA

9. Datu pertsonalak eta komunikazio elektronikoak.

9.1. Webguneak beharrezko neurriak beteko ditu, aldez aurreko kontsulta publikoan parte hartzen duten pertsona fisikoen datu pertsonalen babesa bermatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, aurreikusitako eran.

9.2. Webguneak beharrezko neurriak bete beharko ditu, aldez aurreko kontsulta publikoaren izapidean eginiko komunikazio elektronikoetan berma dadin jasota geratu dela komunikazioa bidali eta hartu izana, komunikazioen ordu eta egunak eta komunikazioen eduki osoa.

9.3. Halaber, aldez aurreko kontsulta publikoan parte hartu duten herritarrak modu fidagarrian identifikatzen utzi beharko du webguneak, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, aurreikusitako eran.

Osoko Bilkurak 2017ko urtarrilaren 11ko bilkuran onartu zuen.